

**2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018**

**Akta zenbakia:** 1/2018  
**Bilera eguna:** 2018-01-11  
**Bilera mota:** ohikoa  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Ordua:** 08:35 -08:45  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº:** 1/2018  
**Fecha:** 11-01-2018  
**Tipo de reunión:** ordinaria  
**Convocatoria:** Primera  
**Hora:** 08:35 – 08:45  
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:**  
Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**  
Maribel Vaquero Montero  
Jorge Segurado Iriondo  
Mikel Izaguirre Recondo  
Consuelo Frutos Gonzalez

**Idazkaria:**  
Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2018ko urtarrilaren 11ean, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 8:35etan, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ohiko bilera egiteko

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

**1.- 2017ko abenduaren 21eko akta onartzea.**

2017ko abenduaren 21eko akta irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa eta bakarra.-** 2017ko abenduaren 21eko akta onartzea.

**Reunidos:**

**Alcalde:**  
Mikel Pagola Tolosa

**Concejales:**  
Maribel Vaquero Montero  
Jorge Segurado Iriondo  
Mikel Izaguirre Recondo  
Consuelo Frutos Gonzalez

**Secretario:**  
Mateo Habibi Astigarraga López

En la villa de Urnieta a 11 de enero de 2018, siendo las 8:35 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión ordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

**1.- Aprobar el acta de 21 de diciembre de 2017.**

Tras la lectura del acta de 21 de diciembre de 2017, la Junta de Gobierno Local adopta, por unanimidad, el siguiente **ACUERDO**:

**Primero y único.-** Aprobar el acta de 21 de diciembre de 2017.

**2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018**

**2.- Urnieta HAPOren H.I.E. 32ko Plan Partzialaren kontratazio prozedura irekitzea eta pleguak onartzea.**

Ikusirik Administrazio Orokorreko Teknikariak 2018ko urtarrilaren 5ean egindako txostena.

Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak "AIU32 Plan Partzialaren kontratazio prozedura irekitzea eta pleguak onartzea" aztertu du, aho batez onartuz ondorengo akordio proposamena:

**Aurrekariak**

Akordio honetako 1. Akordioan adierazitako kontratazio espedienteari hasiera eman dio "AIU32 Plan Partzialaren kontratazio prozedura irekitzea eta pleguak onartzea" zerbitzu sustatzaileak landutako eta bidalitako Baldintza Teknikoen plegua eta xedapenen zatian adierazten den kontratazioaren beharra motibatuzeko txostena.

Sail sustatzailearekin koordinatuta, Administrazio Baldintza Berezien Plegua prestatu da, modu honetan kontratazio espedientea osatuz.

Hau dena kontutan harturik, Tokiko Udal Batzarrak aho batez hartu du ondorengo

**ERABAKIA**

**Lehenengoa.-** Onartzea kontratazio espedientea eta bera arautuko duten Oinarri Teknikoen eta Administrazio Baldintza Berezien Pleguak ere, alde batetik eta, bestetik, esleipen prozedurari hasiera eman, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez erabilita, ondorengo helburua duen kontratuarena:

URNIETAKO UDALEKO AIU32 EREMUAREN  
PLAN PARTZIALAREN IDAZKETA

**2.- Aprobación del expediente y de los pliegos para la contratación de la redacción del Plan Parcial del A.I.U. 32 del PGOU de Urnieta.**

Visto el Informe de la Técnico de Administración General de 5 de enero de 2018.

Visto que la Comisión Informativa de Organización ha tratado el tema "Aprobación del expediente y de los pliegos para la contratación de la redacción del Plan Parcial del AIU32" aprobándose por unanimidad la siguiente propuesta de Acuerdo:

**Antecedentes:**

Ha dado inicio al expediente de contratación la redacción y remisión, por parte del servicio promotor "Aprobación del expediente y de los pliegos para la contratación de la redacción del Plan Parcial del AIU32", del Pliego de Prescripciones Técnicas e Informe de la contratación cuyo objeto se expresa en el acuerdo 1º de la parte dispositiva de este acuerdo.

Se ha redactado el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, en coordinación con el Departamento promotor, completándose de este modo el expediente de contratación.

Por todo ello, la Junta de Gobierno Local con unanimidad de sus miembros, adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar el expediente para la contratación y los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y de Prescripciones Técnicas que lo regirán, por una parte, y por otra, disponer la apertura del procedimiento de adjudicación, a tramitar por procedimiento negociado sin publicidad, del contrato del siguiente objeto:

REDACCIÓN DEL PLAN PARCIAL DEL  
AIU32EL AYUNTAMIENTO DE URNIETA

**2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018**

**Bigarrena.** 66.550 euroko gastua (BEZ barne) baimentzea, Udal honen Udal Aurrekontuko gastuen egoeraren 2018. ekitaldirako 562 partidaren kontura, hori baita Udal honek ordaindu beharko duena Urnietako Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko A.I.U. 32-Babilonia- eremuaren Plan Partziala idazteko lanen zerbitzua publiziterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatzeagatik.

**Hirugarrena.** Onartzea Urnietako Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko A.I.U. 32-Babilonia- eremuaren Plan Partziala idazteko lanen zerbitzuaren publiziterik gabeko prozedura negoziatu bidezko kontratazioa arautuko duten Administrazio Baldintza Partikularren Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria. (I Eranskina).

**Laugarrena.** Eskaintzak gutxienez hiru enpresei eskatuko zaizkie.

**Segundo.** Autorizar, en cuantía de 66.550 euros (IVA incluido), el gasto que para este Ayuntamiento representa la contratación del servicio de los trabajos de redacción del Plan Parcial del A.I.U. 32- Babilonia- del Plan General de Ordenación Urbana de Urnieta por procedimiento negociado sin publicidad, con cargo a la partida 562 del estado de gastos del Presupuesto Municipal de este Ayuntamiento para el ejercicio 2018.

**Tercero.** Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán el contrato del servicio de los trabajos de redacción del Plan Parcial del A.I.U. 32 -Babilonia- del Plan General de Ordenación Urbana de Urnieta, por procedimiento negociado sin publicidad. (Anexo I) .

**Cuarto.** Solicitar ofertas, al menos, a tres empresas.

**3.-Sarobe Arte eszeniko guneko aire egokitua berritzeko proiektua onartzea**

Ikusirik 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateragina onartzen duenaren 121. artikulua xedatutakoa.

Ikusirik lege horretako 2. Xedapen gehigarriaren arabera alkateak duela kontratatze eskumena, baldin eta zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten %10 baino handiagoa, eta, edonola ere, sei milioi eurotik gorakoa ez bada, urte anitzeko kontratuak barne, baldin eta lau urtetik gorakoak ez badira eta urte guztietako zenbatekoen baturak ez badu gaintzen ez adierazitako portzentaje hori, lehenengo urteko aurrekontuko baliabide arruntei dagokienez, eta ez adierazitako zenbatekoa.

**3.- Aprobación del proyecto para la obra de renovación del aire acondicionado del Centro de Artes Escénicas Sarobe.**

Visto lo dispuesto en el artículo 121 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, que aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Visto que de conformidad con la Disposición Adicional 2ª de dicha Ley la competencia para contratar corresponde al Alcalde cuando su importe no supere el 10% de los recursos ordinarios del Presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de los seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer año, ni la cuantía señalada.

## 2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018

Ikusirik 1985 Legeko 21.3. artikulua aplikatuz, alkateak Tokiko Gobernu Batzarrari eman ziola eskumen hori, beste hainbat eskumenekin batera, 2015eko ekainaren 29ko Dekretuaren bidez, eta delegazioan espreski barneratu zela *“obra eta zerbitzuen proiektuak onartzea, horiek kontratatzeko edo esleitzeko eskuena dagoenean”*.

Ikusirik obra proiektuaren zenbatekoa, BEZa barne 157.752,79 eurokoa dela, eta zenbateko hori ez dela aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa.

Ikusirik 2018ko urtarrilaren 10eko Lurraldeko Batzorde Informatzailearen aldeko diktamina.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

#### **ERABAKI DU:**

**Lehena.-** Sarobe Arte eszeniko guneko aire egokitua berritzeko proiektua onartzea.

#### **4.- Bestelakoak**

Mikel Izagirrek komentatzen du hondakinak biltzeko sistemari jarraipen zorrotz bat egin behar zaiola, azkeneko egunetan kontenedoreekin arazoak egon baitira (irekitzean, ixtean, poltsa asko kontenedoreetatik kanpo, etab.). Bere iritziz arrazioa, sistemaren funtzionamenduan akatsa dagoela gaineratzen du.

Mikel Pagola alkateak erantzuten du azkenengo egunetan San Markosen baitan jarraipena egiten ari dela, baina baita ere sare sozialetan zikina den jendeari kritika geroz eta handiago dela.

Consuelo Frutos zinegotziak esaten du, bilketa sistema berria abiatzerakoan kritika hau egin zela: jendeak jarraitzen duela kontenedorea hutsik dagoenean hondakin poltsak kalean

Visto que, en aplicación de lo establecido en el artículo 21.3 de la Ley 7/1985, el Alcalde delegó dicha competencia, entre otras, en la Junta de Gobierno Local mediante Decreto de fecha 29 de junio de 2015, incluyendo en dicha delegación *“la aprobación de los proyectos de obras y servicios cuando sea competente para su contratación o concesión”*.

Visto que el importe del proyecto de obras asciende, IVA incluido, a 157.752,79 euros y que dicho importe no supera el 10 % de los recursos ordinarios del presupuesto del Ayuntamiento.

Visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Territorio de fecha 10 de enero de 2018.

La Junta de Gobierno Local adopta por unanimidad el siguiente

#### **ACUERDO:**

**Primero.-** Aprobar el proyecto para renovación del aire acondicionado del Centro de Artes Escénicas Sarobe.

#### **4.- Otros.**

Mikel Izagirre comenta que hay que hacer un seguimiento riguroso del sistema de recogida de residuos, ya que los últimos días ha habido problemas con los contenedores (a la hora de abrirlos y de cerrarlos, muchas bolsas fuera de los contenedores, etc.). Añade que hay un fallo en el funcionamiento del sistema.

El alcalde Mikel Pagola le contesta que los últimos días se está realizando un seguimiento dentro de San Marcos, pero que asimismo la crítica en las redes sociales hacia las personas que son sucias es cada vez mayor.

La concejala Consuelo Frutos señala que cuando se puso en marcha el nuevo sistema de recogida se realizó la siguiente crítica: la gente continúa depositando las bolsas de residuos en



**2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018**

uzten. Uste du ordenantza betetzen ez duen jendearekin neurriak hartu beharko liratekeela.

Mikel Pagola alkateak dio badagoela gaizki egiten duen jendea, baina baita ondo egiten duena, eta horregatik % 69ko tasara ailegatu dela. Hobekuntza marjina dagoela eranstu du.

la vía pública a pesar de que el contenedor está vacío.

El alcalde Mikel Pagola señala que hay gente que realiza mal la recogida, pero que también hay gente que la realiza bien, y que por ello se ha alcanzado una tasa del 69%. Añade que hay un margen de mejora. Y sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión, de la que yo, el Secretario, certifico.

Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López

Idazkaria

Sin.: Mikel Pagola Tolosa

Alkate-lehendakaria

**Anexo I / I. eranskina**

**ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA, URNIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO  
PLAN OROKORREKO A.I.U. 32 -BABILONIA- EREMUAREN PLAN PARTZIALA IDAZTEKO LANEN  
ZERBITZUAK PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ KONTRATATZEKO**

**I. KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

Agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea zerbitzu hau ematea izango da: **URNIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORREKO A.I.U. 32- BABILONIA- EREMUAREN PLAN PARTZIALA IDAZTEKO LANAK** Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitakoaren arabera.

**CPV Nomenklatura:** 71000004 (hiri-plangintzako eta paisaia-arkitekturako zerbitzuak)

Lan hauek dokumentu batean jasoko dira, Baldintza Teknikoen Agirian xedatutakoaren arabera. Dokumentu hori Udalak erabiliko du aipatutako Plan Partziala tramitatzeko, behin betiko onartzen den arte, gainerako dokumentazio teknikoarekin batera.

Administrazio Baldintza Partikularren Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian xedatutakoaren arabera eta udal teknikariek emandako jarraibideak betez burutuko da kontratua.

Administrazio Baldintza Partikularren Agiriak eta Baldintza Teknikoen Agiriak kontratuzko izaera izango dute, eta esleipendunak, ados dagoela frogatzeko, kontratua formalizatzen denean izenpetu beharko ditu.

**2. EPEA**

Kontratu honen iraupena 5 hilabetekoa izango da administrazio-kontratua formalizatzen denetik kontaktzen hasita. Kontratua zerbitzuak ematen hasi aurretik izenpetuko da.

Epe partzialak Baldintza Teknikoen Agirian zehazten dira eta lotesleak izango dira kontratistarentzat.

Gutzizko epea eta epe partzialak zenbatzeko orduan, ez dira zenbatuko espedientearen tramitazioa beste administrazio batzuk egin beharreko txostenen edo Urnietako Udalak hartu beharreko erabakien baitan dauden aldiak.

Aipatutako epe horietako edozein igarotzen bada, kontratatutako persona fisikoa edo juridikoa berandutu dela ulertuko da, eta ez da beharrezkoa izango aldez aurretik Administrazioak ohartarazpenik egitea.

**3. KONTRATUAREN AURREKONTUA**

Kontratuaren urteko zenbateko zenbatetsia eta maximoa 66.550 €-koa izango da (**%21eko BEZa barne**); **horietatik** 55.000 € nagusiari dagozkio eta 11.550 € BEZari. Lizitatzailleek kopuru hau hobetu ahal izango dute beren eskaintzetan.

Eskainitako prezioaren barruan egongo dira kontratatutako zerbitzuak ondo emateko egin beharreko gastu guztiak, esaterako, orokorrak, finantza gastuak, irabaziak, aseguruak, ordutegiaren barruan ardurapeko langile teknikoen laneko denborak, dietak, aurrerakinak, tasak eta era guztietako beherapenak; horiek guztiek ezin izango dute partida independente gisa eraginik izan esleipeneko prezioan eta, ondorioz, Udalak ez du inola ere ezarritako kopurua baino handiagorik ordainduko.

## 2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018

Erantsitako Balioaren gaineko Zerga, ordea, banakatua egongo da eskaintzetan, kontratuari aplikatu dakiekeen tipoa eta zenbatekoa adierazita.

Kontratuaren iraupena kontuan hartuta, kontratuaren balio zenbatetsia 55.000 eurokoa izango da BEZik gabe, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren 88. artikulua araberak.

Kasu hauetan ez da lizitatuzaileen eskaintzarik onartuko:

- Guztizko aurrekontua gainditzen dutenean.
- Agiri honek aipatzen dituen lan batzuk soilik dituztenean.

#### 4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

#### 5. ORDAINTZEKO ERA

Prezioa honela ordainduko da:

- Hasierako onarpen-dokumentua aurkeztu ondoren: prezioaren %40.
- Aurkeztutako alegazioei eta erreklamazioei buruzko txostena aurkeztu ondoren edo alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu gabe legalki aurreikusitako epea igaro ondoren: prezioaren %10.
- Behin betiko onarpena duen dokumentua aurkeztu ondoren: prezioaren %30.
- Azken %20a behin betiko onarpenaren ondoren.

Dokumentu bakoitzaren idazketa-lanak amaitu ondoren, esleipendunak dagokion faktura aurkeztuko du. Dokumentu horretan prezioa eta dagokion BEZa zehaztuko dira.

Jarraian, dagokion udal organoak hura ordaintzea erabakiko du, aldeko txosten teknikoa egin ondoren, zeina nahitaezkoa izango baita. Txosten hori gehienez ere 15 eguneko epean egin beharko da faktura jaso eta biharamunetik aurrera.

Faktura onartu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren 216. artikuluan legalki aurreikusitako epeetan ordainduko da. Testu Bategin hori azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen du. Zehazki, Administrazio kontratugileak 30 eguneko epean ordainduko ditu fakturak, faktura onartzen denetik kontaktzen hasita. Ebazpen hori 30 eguneko epean eman beharko da, lanak entregatzen direnetik kontaktzen hasita.

#### 6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez da preziorik berrikusiko SPKTBaren 89.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

#### 7. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, esleipen zenbatekoaren %5aren baliokidea den behin betiko bermea jarriko du, BEZik gabe.

Aipatutako bermea jartzeko epea esleipenaren jakinarazpenean adierazitakoa izango da Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren 96. artikuluan aurreikusten direnetatik edozein izan daiteke.

## **2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

### **ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018**

Bermea eratu izana egiaztatzeko, bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatuzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, esleipena ez da bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriko da.

#### **8. KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete behar dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

#### **9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK**

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienez arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

#### **10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

Kontratistaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriko da.

Egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da, bai eta Administrazioari edo hirugarren batzuei kontratuko egin beharrak ez egiteagatik, akatsengatik, metodo desegokiengatik edo ondorio okerrenengatik etor ahal zaizkien ondorioena ere.

#### **11. KONTRATUA ALDATZEA**

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBaren 107 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada, betiere lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

#### **12. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA**

Zerbitzua eman eta, gehienez, 15 egun pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala egingo da.

Halaber, hilabete bateko berme-epea finkatzen da, harrera formala egiten den datatik kontatzen hasita, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudei orokorrean adierazitako ondorioetarako.



Berme-epe horretan egiten diren lan edo zerbitzuetan akatsak agertzen badira, kontratista izango da erantzulea.

Epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

### **13. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

#### **A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA**

Baldin eta kontratista, berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, kontratua gauzatzeko epean atzeratu bada, hala azken epean nola epe partzialetan, Administrazioak bi erabaki hauetako bat hartu ahal izango du: edo kontratua ebatzi bermea kenduta, edo egunean eguneko zigorrak jarri, kontratuko prezioa 1.000 euro bakoitzeko 0,20ko proportzioan.

Berandutzearen ondoriozko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua zigor berriak ezarriz gauzaten jarraitzeko.

#### **B. ZERBITZUAK ZATI BATEAN EZ EMATEA**

Kontratatik, berari lepora dakizkioken arrazoiengatik, kontratuan adierazitako zerbitzuak zati batean ematen ez baditu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratuari amaiera ematea, edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko zigorra ezartzea.

#### **C. ZERBITZUAK AKATSEKIN EMATEA**

Zerbitzuak akatsekin ematen badira, Udalak kontratuaren aurrekontuaren %10aren baliokidea den zigorra jarri ahal izango du.

#### **D. EGIKARITZAPEN BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA**

8. baldintzan finkatutako gizarte edo ingurumen egikaritzapen-baldintzak betetzen ez badira, Udalak kontratuaren aurrekontuaren %10aren baliokidea den zigorra jarri ahal izango du.

#### **E. KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA**

Kontratatik bere eskaintzan adierazi dituen baliabide materialak edo pertsonalak adskribitzen ez baditu, 18. baldintzan xedatutakoaren arabera, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren %10aren baliokidea den zigorra jarri ahal izango du.

### **14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK**

Zerbitzu-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223 eta 308. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

### **15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK**

Udalari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **16. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA**

Kontratu honen esleipena prozedura negoziatu bidez egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 169. artikulutik 178. artikulura ezarritakoarekin bat etorritz, testu honen 174.e) artikuluan jasotako kasua baita.

## 2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018

Kontratuaren xedeari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko eta/edo tekniko negoziatu ahal izango da parte-hartzaileekin. Batez ere, alderdi hauek baloratuko dira:

- Proposamenaren antolamendu orokorra eta eraikuntza-tipologia.
- Antolamenduaren energia-eraginkortasuna, besteak beste, eguzkialdiaren aprobetxamenduari dagokionez, eraikuntzan eta espazio publikoan, euri-uren aprobetxamenduari dagokionez eta energia garbiaren sorkuntzari dagokionez.
- Mugikortasun jasangarriari buruzko azterketa.
- Urbanizatutako mugaren tratamendua, eta erlazioa landa-ingurunearekin.
- Eskaintza ekonomikoa.

#### 17. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio prozedura honetan parte har dezakete pertsona natural edo juridikoek, baldin eta gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna badute, gaitasun ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan hitzarmenak egiteko debekuari buruz aipatzen diren egoeretan ez badaude. Kaudimena 18. baldintzaren e) letran finkatutako moduan egiaztatu eta ebaluatuko da.

Halaber, pertsona natural edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten bat aurkezten denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresaburuek, gainera, kontratu honen xede den jarduera edo zerbitzua emateko eska daitekeen enpresa edo lanbide gaitasuna izan beharko dute.

#### 18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA PARTE HARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA

Kontratazio honen espediente, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, BERTAN Bulegoan, 7:30etatik 14:30etara eta egun baliodunetan aztertu ahal izango da, gonbidapen-idazkian zehazten den proposamenak aurkezteko epearen barruan.

Proposamenak adierazitako tokian eta ordutegian eta gutun-azal itxi baten barruan aurkeztu beharko dira. Gutun-azalean honako hau idatziko da: **"URNIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORREKO A.I.U. 32 -BABILONIA- EREMUAREN PLAN PARTZIALA IDAZTEKO LANEN PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"**. Hona hemen gutun-azalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean arituz gero, notario-ahalordea. Notarioaren-ahalordea Udalak askietsiko du gutun-azal honetako dokumentazioa kalifikatzerakoan.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eraketaren edo aldaketaren eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, merkataritzako legeria aplikagarriaren arabera inskripzioa nahitaezkoa baldin bada. Nahitaezkoa ez bada, estatutuen edo fundazio egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori Erregistro Ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresaburuak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, jatorrizko erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, ezarrita dauden Estatuko legeriaren arabera, edo zinpeko adierazpen edo egiaztagiria bat aurkeztuko dute, xedapen komunitario aplikagarrien arabera.

**2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018**

Azterriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, delako estatu horretan Espainiak daukan ordezkari-tza diplomatiko iraunkorrak edo enpresak helbidea duen kontsuletxe-ko bulegoak egindako txostenaren bidez.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan kontratatze-ko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitortpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiria-ki aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Betiere, zerga horren matrikulan baxarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko aitortpena erantsiko du.

e) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa.

- Kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren egiaztapena. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa era hauetako baten edo batzuen bidez egiaztatu beharko da:

- Finantza entitateen adierazpen egokiak edo, kasua bada, laneko arriskuen kalte-ordainari erantzuteko aseguru- badagoela egiaztatzen duen agiria. Finantza entitateek egindako txostenaren datak, gehienez ere, proposamenak aurkezteko epearen azken eguna baino hiru hilabete aurrekoa izan behar du. Lanbide arrisku- etarako kalte-ordainen aseguruak kontratuaren lizitazio-ko oinarri-ko aurrekontua estali behar du, gutxienez.

Enpresen talde bat denean, haien lotura egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 59. artikuluan xedatutakoa betez.

- Kaudimen teknikoa egiaztatzea. Kaudimen teknikoa honako modu honetan egiaztatuko da:

- Kontratuaren xede diren lanetara esleitutako langileen aurkezpenaren bidez, haien arduraldia adieraziz. Zerbitzua emateaz arduratuko den taldeak bide ofizialen bidez egiaztatu beharko du gutxiene-ko titulazio hau:

- Hirigintza-arloko arkitekto bat,
- Zuzenbidean lizentziatu bat, Hirigintza-arloan aditua.

Gainera, talde arduradunak langile gaituak izango ditu Planaren azterketa ekonomiko-finantzarioak HAPOk eremurako aurreikusten dituen egiturazko zehaztapenei buruzko merkatu-azterketa bat izan dezan.

- Azken hiru urteetan eginiko zerbitzu edo lan garrantzitsuenak, zenbatekoa, datak eta norentzat egin diren (publikoa edo pribatua) adierazita. Hartzailea sektore publikoko entitate bat izanez gero, horretarako eskumena duen organoak egindako ziurtagiria aurkeztu behar da; hartzailea subjektu pribatu bat izanez gero, hark egindako ziurtagiria aurkeztu behar da. Ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren aitortpena aurkeztu behar da. Hala badagokio, eskumena duen organoak zuzenean jakinaraziko dizkio ziurtagiri horiek kontratazio-organuari. Bereziki, enpresak egiaztatu beharko du kontratu honetako eremuaren antzeko eremu bat hartzen duen hirigintza-ki plangintza-dokumentu bat egin izana azken 10 urteetan.

f) Zenbait enpresaburu lehiaketara aurkezten badira Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero ABEE formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa gutziek. Halaber, Aldi Baterako Enpresa Elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen

**2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018**

adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresek parte hartuz gero, hauxe aitortu beharko dute: Espainiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren menpe jarriko direla kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, eskaintzaileari legokiokeen atzerriko eskumeneko jurisdikzioari uko egingo diotela.

h) Posta elektronikoko helbide bat prozedura honi buruzko jakinarazpenetarako, SPKLren Testu Bateginaren 151.4 artikularen arabera eta ondorioetarako.

i) Proposamena azaltzen duen memoria bat, zeinak 16. baldintzan adierazten diren alderdiak aipatuko baititu, gehienezko prezioa izan ezik. 10 DIN A-4 alde batetik, Arial 10 letra motan, lerroarte bakuna.

j) DIN A-1 neurriko 2 panel euskarri gogorraren gainean eta formatu bertikalean, zeinak enpresa eskaintzailearen proposamena izango baitu.

k) I. Eranskinaren ereduarekin bat etorritz egindako proposamen ekonomikoa.

Proposamenak baldintza honetan adierazitako agiriak gabe aurkeztu daitezke –a), b), c), d), e), f) eta g) letretako agiriak gabe–, baina, hala eginez gero, esleipendunak kontratua formalizatu aurretik entregatu beharko ditu.

Goiko a) eta b) puntuetan adierazitako baldintzak agiri hauekin egiaztatu daitezke: Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen ziurtagiri batekin, SPKLaren Testu Bateginaren 84. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtagiriarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen eskaintzailearen erantzukizunpeko aitortpena ere gehitu beharko da.

Aurreko paragrafoan aipatutako ziurtagiria elektronikoki ere egin ahal izango da.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopia aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatu edo baimendu behar ditu. Dokumentazio hori fotokopietan ere aurkeztu ahal izango da, baina, kasu horretan, sailkapenean lehenengo gelditzen denak originalak aurkeztu beharko ditu fotokopia horiek benetakoak direla frogatzeko.

## **19. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Kontratua esleitzeko, kontratazio-organoak kontratazio-mahai baten laguntza izango du. Kontratazio-mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua:

- o Udal Arkitektoa, edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsona.

Mahaikideak:

- o Udal Idazkaria, edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsona.
- o Udal Kontu-hartzailea, edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsona.
- o Ordezkarri bana udal talde politiko bakoitzeko.

Mahaiko idazkaria:

- o Administrazio Orokorreko Teknikaria, edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsona.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, Mahaiak gutun-azalak ireki eta aurkeztutako agiriak aztertuko ditu, eta hauetan akatsik edo gabeziarik balego, epe bat finkatuko du horiek zuzentzeko. Behin agiriak onartuta, hala egokituz gero, kontratuaren xedari lotutako beste edozein alderdi ekonomikoa eta/edo tekniko negoziatzen hasiko dira.

**2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU  
BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018**

Negoiazioa amaitzean, baldintzak aldatzeko konpromisoa hartu dutenek azken eskaintza aurkeztu beharko dute, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena zein den balioesteko eta hautatzeko. Hori Kontratazio Mahaiak egingo du eta kontratuaren behin betiko xedapenak zehaztu eta finkatuko dituen esleipen-proposamena bidaliko dio kontratazio-organoari. Ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena zein den balioesteko eta hautatzeko, esleipen-irizpide hauek jarraituko dira:

- Proposamenaren antolamendu orokorra eta eraikuntza-tipologia. 40 puntu.
- Antolamenduaren energia-eraginkortasuna, besteak beste, eguzkialdiaren aprobetxamenduari dagokionez, eraikuntzan eta espazio publikoan, euri-uren aprobetxamenduari dagokionez eta energia garbiaren sorkuntzari dagokionez. 25 puntu.
- Mugikortasun jasangarriari buruzko azterketa: 15 puntu.
- Urbanizatutako mugaren tratamendua, eta erlazioa landa-ingurunearekin: 15 puntu.
- Eskaintza ekonomikoa: 5 puntu.

Esleipena egiteko, beharrezkoa izango da esleipendunak esleipenaren jakinarazpenean zehaztuko zaizkion jarduketak egitea, eta kontratua formalizatzea.

Kontratuak administrazio-agiri gisa formalizatuz hartuko du indar juridikoa. Agiri hori zehaztasunez egokituko da lehiaketako baldintzei eta nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora jo ahal izateko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta kasu horretan berak ordaindu beharko ditu gastuak.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, hau da, gehienez ere 15 egun balioduneko epean, esleipendunak hauxe egin beharko du:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztu edo kontratazio-organoari baimena eman ziurtagiri horiek zuzenean lortzeko. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.
- b) Baldintza agiri honetako 18. e) baldintzan aurreikusitakoaren arabera, eta hala balitz, kontratua gauzatzeko atxikitza konprometitutako baliabideak benetan dituela justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu.
- c) Behin betiko bermea jarri izana egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu.
- d) Jatorrizko agiriak aurkeztu, proposamenaren gutun-azalean fotokopia hutsak aurkeztu baditu.
- e) Baldintza-agiri honetan eskatzen diren beste dokumentu batzuk aurkeztu, aurkeztu ez baditu.
- f) Administrazio honetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **20. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du, eta agiri honek eta honekin batera doan gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute kontratua. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Testu Bategina onartzeko den azaroaren 14ko 3/2011 Errege Legegintza Dekretua; Sektore Publikoko Kontratuari buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 ED Legegilearen aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Baldintza Administrazio Partikularren Agiri honen eta espedientearekin batera doazen gainerako agiri teknikoaren artean kontraesanik balego, Agiri honetan xedatutakoa nagusituko da.



## 2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018

#### 21. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratistak SPKLaren Testu Bateginaren Hogeita seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

#### 22. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Organoak hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administrazio-bideari, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa erabili ahal izango da zuzenean horien aurka egiteko. Hala ere, hala badagokio, aukera egongo da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako administrazioarekiko ererkurtsoetako edozein jartzeko.

....., 20....(e)ko .....aren ....(a)

#### I. ERANSKINA. LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMEN EKONOMIKOETARAKO ERABILIKO DEN EREDUA

Lizitatzaileren datuak: Izen-abizenak ..... Helbidea  
..... Posta kodea ....., NAN  
zenbakia....., Telefonoa ..... Helbide elektronikoa.....,

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin. Ordezkarieren datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak: .....

Helbidea.....  
..... Posta kodea ....., Telefonoa ..... NAN edo IFK zenbakia (pertsone fisiko edo juridikoa denaren arabera) ....., ..... kontratatzeko asmoz prozedura negoziatu bidezko kontratazioan parte hartzeko gonbita jaso dudala, hona hemen nire adierazpena:

1º) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: ..... €, gehi .....€, azken kopuru hori BEZaren % .....ari dagokiona. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industria-onura ere.  
.....

2º) Baldintza Teknikoen Agiria, Administrazio Baldintza Partikularren Agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainerako agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3º) Ordezkatzen dudan enpresak irekitzeko, instalatzeko eta abian jartzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)ko .....aren ....(a)  
Izenpea





## 2018KO URTARRILAREN 11EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 11 DE ENERO DE 2018

